

bai

ziurtagiridunen aldizkaria

IDOIA EZKURDIA

“Bezeroak bere hizkuntzan
artatzea izugarri eskertzen du”

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

6. alea
2011ko iraila



Rober Gutiérrez
Zuzendaria

GUZTIA DA OSO ZAILA ERRAZA IZAN AURRETIK

25 urte baino gehiago pasa dira euskara ikasten hasi nintzenetik, eta oraindik ere arian-arian, progresibitatea, borondatea, adostasuna, pertsuasioa eta horrelako kontzeptuen azpian ezkutatzen da erabaki eraginkorrak hartzeko ezintasuna. Denok egon gaitezke ados kontzeptu horiekin, baina benetako neurriak behar dira, bestela ezin baita hizkuntza-komunitate baten nahia ase. Argi baitago kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-komunitate bat dagoela egoera guztietan bere hizkuntzan kontsumitzeko eta bizitzeko aukerarik ez duena.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 15. urteurrena ospatu berri da eta, bertan adierazten den bezala, hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte eta berdintasun hori benetakoa izan dadin, ezinbesteko neurriak hartu behar dira, beti ere berdintasun-printzipioa aplikatuz. Alegia, guri eta gure seme-alabei eskubide hori aitortzen zaigu; hori horrela izanik, baten batek bermatu beharko du eskubidea beteko dela.

Badakit hau zaila izan daitekeela, baina guztia da oso zaila erraza izan aurretik. Erraztasunerako bidean, gure hondar alea jartzen ari gara Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez. Bai Euskarari Ziurtagiria urrats biziak ematen ari den bezala, gizarte honetako partaide guztiak ere urrats biziak ematera gonbidatu nahi ditut: arduradun politiko guztiak (agintean egon, zein egon ez), enpresak, establezimenduak eta era guztietako entitateak, sindikatuak eta, noski, hizkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonak.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkartea
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943 592148
www.baieuskarari.org



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Nekane Goikoetxea

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkartea, Mahala,
Gipuzkoako Sendagileen Elkartea,
Itzarri, Bidera

Inprimatzailea:

Leitzaran

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkari honetan publizitatea sartzeko idatzi info@baieuskarari.org helbidera edo deitu 943 592148 telefono zenbakira.

LANEAN EUSKARA IKASIZ

2011ko urritik aurrera familia euskaldunetan lan egiten duten laguntzaileei eta beraien enplegatzaileei zuzendutako euskara ikasteko proiektu pilotu bat eskainiko da. Proiektu honen berritasuna da familiek eta laguntzaileek elkarrekin ikastea, pausoz pauso, beren lan-harremana euskarazkoa izan dadin.

Proiektu hau gizarteko bi errealitatetik sortu da: alde batetik, familiak eta batez ere pertsona nagusiak bere egu-

neroko bizitzan etxean edo kanpoan bizi den laguntzailea behar izatearen errealitatea dago. Familia edo pertsona nagusi euskaldunen kasuetan horrek askotan esan nahi du bere ohiko hizkuntza aldatu egin behar dutela, lanbide horretan ari diren langile asko beste hizkuntza bat duten etorkinak baitira. Beste alde batetik, etorkin askorentzat euskara ikastea ez da erraza, dirua eta denbora inbertitu behar direlako eta beraien lehentasuna eguneroko bizitzan, aurrera egitea delako.

Etorkin askorentzat euskara ikastea ez da erraza, dirua eta denbora inbertitu behar direlako eta beraien lehentasuna eguneroko bizitzan aurrera egitea delako

Tailer honen bitartez, bi errealitate horiei erantzun nahi zaie aldaketa eraginez. Hasiera batean tailer hau lanean ari diren pertsonen eta beraien enplegatzaileei zuzenduta dago. Etorkizunari begira, hala ere, asmoa da bien alde-tiko interesa kontuan hartuz, eta behar horietatik abiatuz, euskara ikasten dutenentzat eta langilea bilatzen duten familientzat lan-poltsa bat sortzea; eta proiektu honen eredua beste sektore batzuetara zabaltzea, nekazaritzara edo ostalaritzara, esate baterako.

Donostiako Caritaseko 'Laguntza Etxea'n lau hilabeteko tailerra eskainiko da (langileek astean bi ordu, familiek hilean bi ordu egingo dituzte). Langileak bere lanarekin lotutako esamoldeak, komunikaziorako egiturak eta hitzak ikasiko ditu eta, aldi berean, hizkuntza berri batera hurbiltzeko teknikak. Familiak, berriz, hilean behin eskolak jasoko ditu euskara gutxi dakien pertsona bati nola irakatsi jakiteko.



Jarri gurekin harremanetan!
www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
 eta...



ELHUYAR
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza
eraldatzeko giltza

e
euskararen
normalizazioa

=
emakume eta gizonen
aukera berdintasuna

herritarren
parte-hartzea

15 URTE BETE DITU MAHALAK


Leaburuko (Gipuzkoa) Mahala baserrian, azken lau belaunaldiak bederen, baseritik bizi izan dira, animaliak haztetik, baratza lantzetik eta produktuak azokan saltzetik. Orain dela 15 urte, ordea, baserriaren izen bereko Mahala markako elaborezko produktuak egiten hasi ziren: behi gaztak, yogurtak, mamiak, txerriak, behi haragiak...

Jokin Arrospide Mahalako nagusiak beti argi izan du bere nahia: baserrian produzitzea, bertan transformatzea eta transformatutako produktu hori komertzializatzea. “Horrexegatik Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ateak jo nituen. Gure lana esnea produzitzea zela eta hobe nuela transformatzen ez hastea gomendu zidaten han. Beldur apur bat sartu zidaten, baina familiaren babespean nire nahiekin aurrera egitea erabaki nuen”.

Hala, 1996ko maiatzaren 9an egin zuten Mahalan lehen elaborazioa. Bi gazta motarekin hasi ziren eta handik urtebetera ekin zioten yogurtak ekoizteari. 2003an instalakuntza berriak egin zituzten, lehengoak txiki geratu zitzaizkielako batetik, eta eskuartean proiektu berri bat zerabiltelako bestetik (mendian libre eta janari ahalik eta naturalenarekin elikaturiko txerriak haztea eta Mahalan bertan elaboratzea haien haragia).

Orduz geroztik etengabe produktu berriak sortzen aritu dira eta enpresa ere handituz joan da: “Hasieran familiakoak bakarrik hasi baginen ere, aurrera egin ahala beharrezkoa izan zen langile batzuk kontratatzea. Gaur egun familiako bost lagunez gain, beste 10 langile ditugu eta talde bikaina osatzen dugu”. Mahalak 15 urte bete dituenean eskerrak eman nahi izan dizkie inguruko guztiei: “Bihotzez eskertu nahi diet hemen lanean ari diren guztiei, Mahala babesten duten guztiei, bezero guztiei, eta era handiagoan edo txikiagoan, gurekin konfiantza izan duten guztiei”.

MAHALA: Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua euskaraz” maila.



Leitzaran Grafika, S.L.
Martín Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

HIZKUNTZA LIDERGOAREN GOLAK

Nekane Goikoetxea

Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI Koop. E.
Soziolinguistika Klusterreko *Eralan* egitasmoaren zuzendaria



Produktibitate eta konpetibitate ereduak krisian ei dago. Garai hauetan futbola bezalako entretenimenduak behar ditugu sumindurari aurre egingo badiogu. Nabarmen botika ona da futbolak dituen audientziak kontuan hartzen baldin baditugu. Audientzia-liderra da askotan.

Max Weberren esanetan *lidergoa* “*beste pertsona batzuen jokabidean eragiteko gaitasuna da*”. Argi dago lidergoa eta boterea ongi ezkontzen direla. Hurbil sumatzen dut nik futbolaren boterea: futbol minez sumatzen ditut nik irail honetan ingurukoak eta benetan zail zait kirol albisteengandik ihes egitea. Errengatzen naute kirol albiste arroxek zein botere-negozio horren berbakerak baina nahi gabe ere hor daude atezuan!

Ez da garrantzirik gabekoa boterea dutenek zein hizkuntzatan bideratzen duten botere hori, edota zertarako erabiltzen dituzten hizkuntza ezberdinak. Erakargarritasunari hizkuntza jartzen diote, portaeraren modelajea egiten dute. Galdetu, bestela, Mourinhoren errepresentantearen telefono zenbaki bera izan zuen Usurbilgo semeari zein hizkuntzatan aritu zen amarrutan; ez etxekoan behintzat! Dakizuen bezala, Usurbilgo gazte lokal batetik zabaldu zen Real Madrideko entrenatzailea taldea uztekoan zela. Kontua da Usurbilgo gaztea kazetarien jazarpenaz nazkanazka eginda zegoela bere telefonoan

jasotzen zituelako Mourinhoren bozeramalearen deiak eta kuadrillan bilduta ofizio gutxiko kazetariei adarra jo zietela sano.

Futbolaren negozioan, inguruko enpresetako botereguneetan bezala, erdarak dira nagusi. Hala izanik ere, baieztapen biribil horrek gure gizartearen konplexutasuna ezkututzen digu. Dena ez da zuri edo beltz. *Organizazio batean elkarrekintzan daude hizkuntz gaitasun, hizkuntz jarrera, hizkuntz ideologia eta hizkuntz portaera ezberdinak modu dinamikoan*. Lan munduko organizazio adina egoera aurki genitzake. Errealitate hori boterearen gauzapenarekin erkatzen badugu, argazki argigarria atera genezake.

Botereaz ari garela esan dezakegu botere maila berarekin izan zaitezkeela Guardiola ala Mourinho. Lidergoa garatzeko bi eredu. Bere ahalmena erakitzeke tresna ezberdinak darabiltzate biek. Niri gehiago gustatzen zaizkit Davidenak, oi...barkatu, Guardiolenak... bere tresnak ahulagoak badira ere sufritzen dugun futbol-sistema korporatibo basati honetan. Nahiago ditut bere arriskuak taldekideek legitimitatea eta autoritatea eman diezaioten. Honetan datza bere indarra.

Bizitza nolakoa den... Mou hizkuntz interpreteta izan zen Bartzelonan. Ofizioak, ordea, ez du bermatu hizkuntz jokaera

ekologikorik. Komunikazio tresna huts gisa erabili ditu hizkuntzak eta ez du hizkuntzen atzean dagoen bizitza aintzat hartu, hain mediatikoa den arloan ez dio sinbolismoari erreparatu. Bestetik da Guardiolen artea komunikazio eraginkorrari dagokionez. Eraldatzen ari da sistema oso bat, eredu aurrerakoia goa sortzen.

Baditugu Guardiolen tankerako pertsonak gure enpresetan. Euskara planak ugaltu ahala, gero eta pertsona eraldatzaileagoak ezagutu ditugu baina badira bestelakoak ere. Gure enpresetako botereguneetan gizarteko hizkuntza aniztasunari uko egiten dionak elebakar jokatuta, Mourinhoren zuriaren aldera ari da; ez Guardiolen blaugranaren aldera begira.

Aitortu behar dut badudala futbolarikiko perbertsio txiki bat. Futbol zale ez naizen arren, asko gozatzen dut Josep Guardiolen prentsurrekoekin. Ez da bakarrik gure Pep guapoago dagoelako burusoildu denetik, ez! Krisia eramaten laguntzen dit bere erantzunen erreperitorioa entzutean -orain katalanez, orain gaztelaniaz, orain ingelesez...- zer nahi duzue esatea... Horrela, aniztasuna hobeto kudeatuko duen ereduaren esperoan geratzen naiz txintxo-txintxo telebistari begira eta ez naiz hain suminduta sentitzen. Pepen hizkuntz ereduak harrapatu nau golak ikusteko zain.



Idoia EZKURDIA

Nekaturreko arduradun teknikoa

12 urte daramatza Idoia Ezkurdiak Nekaturren, EAEko nekazalturismo eta landetxe jabeen elkartean. Orain dela 20 urte sortu zen Nekatur eta gaur egun 300 kide inguru ditu. Hainbat ardura ditu elkarteak: publizitate, promozio eta komertzializazio lana egitea, nekazalturismo eta landetxeen kalitate kontuetan laguntzea, formakuntza ematea edota merkatu berriak irekitzea. Lan horiek aurrera eramateak ematen duten esperientzia eta jakintzatik abiatuta, landa-turismoaren bilakaeraz, gaur egungo egoeraz eta jarduera horretan hizkuntzak duen garrantziaz mintzatu gara Ezkurdiarekin.

Opor garaia bukatzen ari da, uda honen balorazioa egiteko moduan zara?

Bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanda eta eguraldiak ere ez digula lagundu ahaztu gabe, datuak ez dira hain txarrak. Hala ere, joera desberdina izan da probintzia bakoitzean. Uztailera behin betiko datuak ditugu: Araban % 10eko jaitsiera izan dugu; Bizkaian, berriz, % 2ko igoera, eta Gipuzkoa mantendu egin da pasa den urtearekin alderatuz. Abuztuko datuak behin betikoak ez izan arren, 2010eko datuekin konparatuta antzekoak izango direla aurreikusten dugu. Edonola ere, datu hauek ez dira duela lau pabost urte bezain onak. Egoera ekonomikoak guri ere eragin digu.

Zein zentzutan?

Lehendabiziko nekazalturismoa sortu zela 21 urte dira eta orduz geroztik izan ditugun datuetan ikusten dugu bezero sarrerak kasu guztietan gora egin duela. Hori guretzat oso datu baikorra da, esan nahi baitu gero eta jende gehiagok hautatzen duela nekazalturismoa ostatu hartzeko. Baina zer gertatzen da? Bisitarien kopurua handia izan arren, gau gutxiago pasatzen dituztela nekazalturismoetan. Horri gehitzen badiogu orain dela urte batzuk baino etxe gehiago izatea, okupazio portzentajea jaitsi egiten da. Horrek, noski, jabeen errentagarritasun ekonomikoari eragiten dio.

Landa-turismoaren barnean urtetik urtera joera mantentzen da edo ohiturak aldatzen ari dira?

Landa-turismoa turismo mota berria da oraindik. Esan dudan bezala, lehen nekazaltzea orain dela 21 urte ireki zen EAEn. Baina beste turismo mota batzuekin konparatzen badugu oso berria da. Orain arteko joera gorakoa izan da. Datuak oso positiboak izan dira azkeneko bizpahiru urteetan izan ezik. Edonola ere, bezero mota bat bada guk eskaintzen dugun turismo mota egin nahi duena eta gu horrekin geratzen gara. Landa-turismoa, gainera, ez da gure erkidegoan soilik garatu, baita estatuan eta Europan ere. Orokorrean begiratuta

“Euskara gure egunerokoan gehiago txertatzeko balio izan digu Bai Euskarari Ziurtagiriak”

ere gero eta gehiago erabiltzen diren os-tatu motak dira.

Zein balio erantsi dauka landa-turismoak? Zergatik hautatzen du bezeroak turismo mota hori?

Nekazal etxe eta baserriak natura inguruetan daude kokatuta. Beraz, naturarekin kontaktu zuzena eskaintzen dute, lasaitasuna eskaintze dute. Gure bezero asko eta asko hiri handietakoak dira eta estresetik ihesi, lasaitasun bila datoz. Dena dela, oro har, bezeroek bereziki baloratzen dutena jabearekin kontaktu zuzena edukitzea da. Ezin dugu ahaztu nekazalturismoak eta landetxeak gestio familiarra duten negozioak direla eta plaza kopuru mugatua dutela: nekazalturismoen kasuan 16 eta landetxeen kasuan 18. Beraz, tratua oso zuzena izaten da bezeroen eta jabeen artean eta askotan bezero-jabe erlazio hori lagun erlazio bihurtzen da. Bezero asko familia giroan egoten dira eta hori eskertzen dute. Horrez gain, nekazalturismoak gure kultura, tradizioak edota gastronomia erakusteko aukera ematen du.

Zein motatako turistak egiten du landa-turismoa?

Nahiko perfil zabala daukagu. Adinari dagokionez, oro har, 25 eta 60 urte artekoa izaten da. Bikoteak edo bikoteak hurrekin izaten dira, baita familia edo lagun-taldeak ere. Azken horiek askotan eskatzen dute etxea osorik hartzea. Eta jatorri aldetik, Kataluniakoak, Madrilgoak eta EAEkoak dira gehienak. Azken bizpahiru urteetan bezero euskaldunen kopuruak gora egin du nabarmen. Lehen kanpora zihoana orain inguruan gehiago geratzen da. Bizkaitarrek Gipuzkoa hauta dezakete edo gipuzkoarrek Araba. Erkidego

barruan gelditzen dira bisitariak. Horiezaz gain ere, gehien igo diren turistak inguruetakoak izan dira. Adibidez, Nafarroakoak, Zaragozakoak eta, batez ere udara partean, Valentziakoak. Atzerritik frantses asko etortzen da gertutasuna dela-eta. Gero, Alemania, Italia eta Britainia Handikoak ere bai.

Udako turismoa amaituta izaten da eskaririk?

Egia da guk okupaziorik handiena abuztuan izaten dugula. Hemendik aurrera asteburuetan lan egiten da eta zubietan ere bai. Orain, adibidez, Gabonak arteko zubietan dauzkagu eskariak eta baita Gabonetan ere. Azken hiruzpalau urteetan Gabonetako okupazioa asko igo dugu jende askok jai horietako egun seinalatueterako etxe osoa alokatzen duelako.

Aurrera begira zer nolako aurreikuspenak dituzue?

Gu aisialdiaren alorrean ari gara lanean, eta beraz, ekonomiaren egoerak zuzenean eragiten digu. Beraz, adi egon beharko dugu ekonomiaren eboluzioari. Horrelako garaietan are eta lan gehiago egin behar dugu. Bereiziki landu beharreko lau alor dauzkagu finkatuta:

Nazioarteko bezeroa: guretzat bezero oso interesgarria da, normalean estatuko turistarekin alderatuz urtean zehar data desberdinetan etortzen direlako eta normalean gau kopurua handiagoa izaten delako.

Enpresak: astean zeharreko egunak okupatzeko balio du.

Arlo soziala: bada adineko pertsonen nahiz pertsona ezinduen balizko bezeroen multzo handi bat eta arlo hori ere lantzen ari gara.

Turismo sentimental: lehengo euskaldunak eta hauen ondorengoak dira.

Nekazalturismoa euskal produktua da. Estatuan edo European bada antzekorik?

Estatu mailan legedi bakar eta homogeneorik ez dago. EAEn Eusko Jaurlaritzak hainbat konpetentzia ditu turismo arloan eta guk eskaintzen dugun turismo mota Eusko Jaurlaritzak arautzen du. Estatuko beste lurraldeetan ere horrela egiten dute. EAEn nekazalturismoa eta landetxea modalitateak ditugun bezala, gainontzeko lurraldeetan beste modalitate batzuk dituzte, beste izen batzuekin eta beste irizpide batzuen arabera funtzionatzen dutenak. Horrek askotan bezeroa nahastu egin dezake. Adibidez, Frantzia ez da horrelakorik gertatzen, dena bateratua dago. Frantzia osorako irizpide jakin batzuk dituzte. Hemen ere irizpide batasunak erraztasuna emango liguke estatu mailako bezeroak kudeatzeko. Egia da, era berean, estatu mailan gu garela lehenengo hasi ginenak eta erreferente izan garenak landa-turismoaren alorrean. Eta guk bi modalitate besterik ez dauzkagunez (nekazalturismoa eta landetxea), bezeroak gero eta errazago desberdintzen ditu.

Orain dela urte batzuk familia askok jarri zituzten nekazalturismoak. Oraindik ere animatzen da jendea era horretako proiektuetan sartzera?

Orain dela 6-7 urte **boom** moduko bat egon zen. Nekazalturismo eta landetxe kopuru handia irekitzen zen urteror. Ondorengo urteetan kopuru hori jaisten joan da, baina merkatu librean gauden momentutik lege-dekretu batzuk daude eta edozeinek ireki dezake nekazalturismo edo landetxe bat. Hala ere, gurekin harremanean jartzen direnean beti argi uzten diegu beste ezeren aurretik bideragarritasun plan bat egin behar dutela, batez ere, gauza asko kontuan izan behar direlako: non dau-

den kokatuta, baserria bera, ingurua, zerbitzuak...

Euskararen arloa etorri, Nekaturren zer balio ematen diozue euskarari?

Guk garrantzi osoa ematen diogu. Lehenik eta behin, Nekaturrentzako lan egiten dugun guztiok euskaldunak gara eta euskaraz hitz egiten dugu. Jabe portzentaia handi batek ere euskaraz hitz egiten du. Esan nezake gainera, Nekaturren lan egiteko irizpideetako bat dela euskara jakitea. Bezeroa ere hor da eta ezin dugu ahaztu gure bezero asko euskaldunak direla. Ondorioz, guretzat ezinbestekoa eta garrantzi izugarrikoa da euskara gure eguneroko lanerako.

Nekazalturismo eta landetxeek ere ematen diete balio hori euskarari?

Nik uste dut nekazalturismo eta landetxeetako jabeak eurak direla euskarari balioa ematen diotenak. Beraiek euskaldunak direlako, esan dudan moduan kopuru handi bat. Arabako batzuek ez dakite euskaraz, baina beste ia denek bai. Era berean, eurek badakite bezero asko eta asko euskaldunak direla. Beraz, Nekaturek berak nahiz nekazalturismoek euskara kontuan izan behar dute publizitatea egiterakoan edota zerbitzuak eskaintzerakoan.

Euskarak ez ezik, turismoaren arloan hizkuntzek garrantzia izugarria dute. Nola kudeatzen dituzue hizkuntzak? Trataera berbera ematen diezue guztiei?

Gure kasuan garrantzia handiena euskarari eta gaztelaniari ematen diegu. Horiek dira gehien erabiltzen ditugun hizkuntzak, gure bezerorik gehinek hizkuntza horiek erabiltzen baitituzte, bai gure nekazalturismoetan ostatu hartzen duten bezeroek eta baita gure elkartekideek ere. Administrazioarekin ditugun erlazioetan ere bi hizkuntza horiek erabiltzen ditugu. Bestelako bezeroak ere baditugu eta haiei zuzenduriko kanpainak edo komunikazio ekintzak

egiten ditugunean euren hizkuntzan egiten dugu. Erreserba bat egiteko edo edozein gestio egiteko bezero bat gurekin harremanetan jartzen bada bere hizkuntzan artatzen dugu. Adibidez, gure webgunea zazpi hizkuntzatan dago, eta gainera *google translate* tresna daukagu informazio hori beste hizkuntzaren batera itzuli nahi duena-

“Bezeroek bereziki baloratzen dutena jabearekin kontaktu zuzena edukitzea da”



“Azken bizpahiru urteetan bezero euskaldunen kopuruak gora egin du nabarmen”

rentzat. Gure bulegoan euskara, gaztelania, katalana, frantsesa, ingelesa eta italiara hitz egiten dira. Azken finean, bezeroak bere hizkuntzan harrera egitea eskertu egiten du.

Nekaturek Bai Euskarari Ziurtagiria du. Zergatik erabaki zenuten Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzea?

Nekaturek hasiera-hasieratik du Ziurtagiria. Bai Euskarari Ziurtagiria lortzea erabaki genuen Nekatureko kide garen gehientxoek euskaldunak garelako eta euskaldun sentitzen garelako. Ikusi genuen, gainera, euskara gure egunerokoan gehiago txertatzeko tresna baliagarria zela Ziurtagiria. Elkarte barruko gestioetan gaztelania ere erabiltzen dugu, ezin dugu ahaztu gure kide batzuek ez dakitela euskaraz. Baina saiatzen gara ahal dugun guztia euskaraz egiten eta gauza txikietan ere euskara txertatzen, baita bulegoko gestioan ere. Lehen zenbait gauzatarako gaztelania gehiago erabiltzen genuen eta Bai Euskarari Ziurtagiriarekin, urtero egiten diguten azterketaren bidez, konturatu ginen gaztelaniaz egiten genituen zenbait gauza euskaraz ere egin genitzakeela berdin-berdin. Bai Euskarari Ziurtagiriak kontzientziazten lagundu digu. Euskara mantendu egin behar da, baina lagundu egin behar da mantentze horretan eta funtzio hori ere betetzen du Ziurtagiriak.

Zergatik uste duzu eskuratu beharko luketela Bai Euskarari Ziurtagiria turismoaren alorrean diharduten entitateek?


Euskal Herrian gaude, euskara gure hizkuntza da, identitate marka bat da eta hori erakusten du Ziurtagiriak. Gure egunerokotasunean hizkuntzaren normalizazioan laguntzeko tresna bat da Bai Euskarari Ziurtagiria. Gure kasuan, gu baserria gara, euskal produktua gara eta hori erakutsi egin nahi diegu gure bezeroei. Euskaldunak direnak gure etxeetara etortzean euskal giroan sentitzea, etxean sentitzea, garrantzitsua da, eta atzeritarrei gure kultura eta hizkuntza erakutsi nahi dizkiegu. Azken finean, euskara balio erantsia da eta baita Bai Euskarari Ziurtagiria ere.

LANBIDE HEZIKETARAKO HIZTEGIA ON-LINE

Hiztegi hau **Laneki** elkarteak sortutako euskarazko hiztegi teknikoa dugu, on-line eta guztiz doakoa. Erabilpen erraza eta azkarra eskaintzen duen tresna da. Bertan, bilaketak Lanbide Heziketa osatzen duten familien bidez egin daitezke. Hitzaren esanahiaz gain, hitz hauen testuinguru desberdinak jasotzen dituzten esaldi eta esamoldeak ikusteko aukera ematen digu hiztegi honek.

Ikaslan eta **Hotel** erakundeek garatutako Lanbide Ekimena proiektuaren barruan kokatzen da hiztegi hau. Proiektu honen helburu nagusia, Lanbide Heziketarako materialak euskaratu eta interneten erabiltzaileen eskura jartzea da.

Informazio gehiago: www.jakinbai.com



HIZNET GRADUONDOKOAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Hiznet Hizkuntza Plangintza ikastaroaren ibilbide luzean 400dik gora kidek parte hartu dute. 2011/2012 ikasturtea izango da ikastaroaren hamaikagarren edizioa; azaroan hasi, eta datorren urteko uztailera amaituko da. Euskal Herriko Unibertsitateko Berezko Titulua da berau eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren babesa du. Soziolinguistika Klusterra eta Udako Euskal Unibertsitatea ere ikastaroaren laguntzaile dira.

Soziolinguistikaren oinarritzako ezagutza eskaintzeaz gain, **Hiznet Hizkuntza Plangintza** graduondokoak ondoko helburu

nagusi hauek ditu: euskararen normalizazioaren plangintzarako metodologia eta lanabesak irakastea, euskararen egoeraren berri zehatza ematea, eta Euskal Herriko gizarteak hizkuntzekiko eskaintzen dituen baldintzak ezagutaraztea.

Ikastaroak metodologia malgua darabil; e-learning formazio eredua eta aurrez aurreko lau saio uztartzen ditu. Ikastaroa abian jarri zenetik arlo ezberdinetako irakasleek parte hartu dute bertan; Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek eta ikerlariak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako

teknikariek, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak, euskara teknikariek eta hainbat enpresa eta euskalgintzako profesionalek, besteak beste.

Graduondokoa euskara teknikariei, egunen batean zeregin horietan aritzeko asmoa dutenei, herri administrazioan eta hezkuntza sisteman hizkuntza normalkuntzaren ardura dutenei... zuzenduta dago. Ikastaroan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta ikastaroaren nondik norako guztiak ondoko webgunean topa daitezke: (<http://hiznet.asmoz.org/>).

ASMOZ FUNDAZIOA: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

ELHUYAR HIZTEGIAK ANDROID ETA IPHONE PLATAFORMETAN

Gaur egun, euskara garatzeko, erabiltzaileen orientazioan sakontzeko eta euskararen erabilera handitzeko, ezinbestekoa da gure produktuak presente egotea erabiltzaileek darabiltzaten plataforma eta euskarri guztietan; eta hiztegiak, zer esanik ez. Hiztegiak jada ez baitira paperean argitaratutako produktuak soilik, hainbat euskarri eta plataformetan erabilgarri dauden hizkuntza-baliabideak baizik.

Une honetan, eta etorkizunari begira ere hala dirudi, Google-ren Android sistema eta Apple-ren Iphone sistema dira smartphonetako bi plataforma nagusiak. Plataforma horiek aplikazio eta tresna asko deskargatzeko aukera ematen dute, oso erabiliak dira, eta, Elhuyarren, gure hiztegiak plataforma horietan kontsultatzeko moduan jartzen ari dira. Hiztegiak Android eta Iphone plataformetarako modu egoki, erabilgarri eta irisgarrian jartzeko, Eleka Ingeniaritza Linguistikoa SL enpresaren laguntza izan du. Elhuyarrek hiztegitintan duen jakintza eta esperientzia jarri du proiektuan, eta Elekak, berriz, ingeniartza linguistikoan duen jakintza eta esperientzia. Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du, 2010eko IKT deialdiaren barruan.

Esan bezala, mugikor aurreratu edo smartphonetarako garatu ditu Elhuyarrek hainbat hiztegi; hain zuzen ere, Iphone-rako (iOS sistema eragilea) eta Android sistema duten mugikorretarako (Android 1.6 sistema eragilea edo berriagoa). Hiztegiak eskuratzeko, Apple-ren App Store (<http://store.apple.com>) eta Google-ren Android Market (<https://market.android.com>) dendetara jo behar du erabiltzaileak. Xehetasun eta informazio gehiago dago Elhuyarren webgunean (www.elhuyar.org).

Hiztegi guztiak, Elhuyar Ikaslearen Hiztegia izan ezik, aplikazio independenteak izango dira, eta hiztegiaren datu guztiak aplikazioaren barruan joango dira; hau da, aplikazioa instalatu eta gero ez da Internetarako konexiorik beharko hiztegi-kontsultak egiteko.

Zehazki, hiztegi hauek izango dira erabilgarri:

- Elhuyar Hiztegia (es-eu/eu-es)
- Dictionnaire Elhuyar hiztegia (fr-eu/eu-fr)
- Elhuyar Dictionary hiztegia (en-eu/eu-en)
- Elhuyar Sinonimoen Kutxa (eu)
- Elhuyar Ikaslearen Hiztegia (eu)
- Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa (aurrerago)



ELHUYAR FUNDAZIOA, ELHUYAR AHOLKULARITZA eta ELEKA: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila.



OOH! PARI TXARTELA

Zenbatekoa zeure esku. 15 eurotik hasita
Gastatu saldoa zeure erritmora
Gastua informazio gunetan kontrolatu

GIB-AREN TEST AZKARRA ABIAN DA


Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) test azkarra proiektu pilotu izate-tik osasun programa izatera pasatu da eta HIESaz kutsatuta egon daitezkeela susmoa duten pertsonen berehala jakin dezakete emaitza, froga guztiz anonimo baten bidez.

2008ko azaroan Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Euskal Autonomia Er-kidegoko Farmazialari Elkargo Ofizialek GIBaren test azkarra programa aitzinda-ria martxan jartzea erabaki zuten. 2009an 20 farmaziatan egin zen eta lehen urteko arrakastaren ondoren, 2010eko maia-tzean beste 10 farmaziatara zabaltzea erabaki zen. Une honetan 30 farmazia-tan egin ahal da froga: Arabako 4tan, Bizkaiko 17tan eta Gipuzkoako 9tan.

GIBaren (HIESaren eragilea da) test azka-rra antigorputzen presentzia detektatzen duen froga da. Atzamarrean zitzada txiki bat egiten da odol tanta batzuk atera-tzeko eta 10 minutu igarotakoan emaitza positiboa edo negatiboa den jakin daite-

ke. Testaren emaitza fidagarria izan da-din leihio-aldia igaro behar da eta bitarte hori hiru hilabetekoa izaten da.

Bezero batek testa egiteko eska-tzen badu, berehala egiten zaio eta une horretan bertan ezinezkoa bada, egun berean beranduago egiteko or-dua ematen zaio. Testa pribatutasuna, konfidentzialtasuna eta arreta perso-nalizatua bermatzen dituen farmaziako lekuren batean egiten da.



GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEA: Bai Euskarari Ziurtagiria "Euskararen bidean" maila.

TXORIERRIN FUTBOLA OINARRITIK EUSKARAZ

Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak, Itzarri aholkularitza en-presak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Txorierriko Mankomunitateak 2010etik martxan dagoen **Futbola Oinarritik Euskaraz** proiektua amaitzeko ekitaldia egin zuten pasa den uda aurrean Txorierriko Politeknika Ikastegian.

Futbola Oinarritik Euskaraz proiektuaren helburua hainbat futbol elkartetako mailarik gazteenak euskalduntzea izan da. Entrenatzaile guztiek euskaraz zekitela kontuan izanik, formazio osoa euskaraz egin da.



Proiektuaren balantzea oso positiboa izan zenez, bertan parte hartutako per-sona eta elkarte guztiak errekonozitu eta saritzeko ekitaldi bat egitea erabaki zuten. Hala, Txorierriko futbol taldeek futbito torneo bat jokatu ostean, proiek-

tuan protagonista izan diren pertsona nahiz elkarteak saritu ziren. Txorierriko futbol elkarteek, bertako alkateen eskutik, euskararen normalizazio bidean egindako lana islatzen duen diploma jaso zuten.

Emozioa Jose Angel Iribarrek jarri zuen. Gorka Iraizozek, Iraia Iturregik, Ibai Gomezek, Koikili Lertxundik, Igor Gabilon-dok, Aitziber Juaristik, Ander Iturraspek eta Iñigo Diaz de Ceriok euskararen le-kukoa jaso zuten Iribarren eskutik, be-rak horrenbeste urtetan euskararen alde eginiko lana orain jokalaria gazteek egin beharko dutela irudikatzeko.

ITZARRI: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

BIDERA ZERBITZUAK

Merkatuan lekua dutela uste duelako enpresa barrurako dituen zerbitzuak bateratu, eta BIDERA ZERBITZUAK markapean bilduta gizarteratzeko apustua egin du BERRIA Taldeak. 2003 urteaz geroztik, hainbat enpresa sortu ditu, nagusiki bere produktuen beharrei erantzuteko xedearekin.

- Prentsa banatzeko banaketa enpresa (Etixeraino SM)
- Publizitate salmentarako eta harpidedunen arretarako enpresa (Iragarri SM)
- Itzulpen eta diseinu lanetarako enpresa (Euskal Editorea SM)

- Taldeko enpresa guztien administrazio kontuak eramateko aholkularitza enpresa (Jarduna SM)

Maiatzean, urrats berri bat eman zuten, eta oro har enpresa taldearentzat egiten zituzten lanak, merkatura zabaltzeko; kanpora begirako zerbitzuak eskaintzen hasi dira, zerbitzuen negozio bolumena handitzeko helburuarekin. Horrela, Berria taldearen eginkizun nagusia den euskarazko komunikabideen sarea sortzen eta sustatzen jarraitzeko asmoa dute.

Hona hemen **Bidera** zerbitzuen eskaintza:



Bidera Dei zentroa

Komunikazio zuzenerako zerbitzua eskaintzen da: bezero-arreta (Bezeroen fidelizazioa lantzeko ekintzak: galderak, zalantzak eta kexak erantzutea; promozio eta zozketen berri ematea) eta telemarketina (zuzeneko salmenta, inkestak, mailing jarraipena, ekitaldietara bertaratzeko egiaztatzeak...).



Bidera komunikazioa

Edozein jarduerarentzako diseinu lanak egiten ditu: argitalpenak (diseinatu, maketatu eta testuak sortu), eta diseinu grafikoari lotutako lanak: irudi korporatiboa sortu, eskuorriak, katalogoak, agendak, kartelak, iragarkiak (paperekoak zein digitalak), besteak beste.



Bidera itzulpenak

Testuen itzulpen, zuzentze eta sorkuntza lanak eskaintzen ditu. BERRIA egunkariko kazetariekin eta Euskara Sailarekin elkarlanean jarduten dugu.



Bidera publizitatea

Euskal Herriko hainbat hedabideren publizitate salmenta egiten da, Euskal Herri osora iristen den komertzial sarearen bitartez.



Bidera banaketa

Banaketa zerbitzu askotarikoa eskaintzen da: paketeria, mezularitza, kartelak jartzea, mailina, postontzietan banatzea eta publizitate banaketa, besteak beste. Gainera zerbitzu osoa ematen da: euskarrien diseinua, inprimatzea, banaketa azterketa eta proposamena, garraio eta banaketa, zerbitzuen jarraipena.



“Marka bateratuari esker, errazago kokatuko gara merkatuan”

BERRIA Taldeak beste urrats bat egin du, Bidera Zerbitzuak sortuta. Zein helbururekin?

Azkenengo urteetan gogoeta bat egin dugu BERRIA Taldean. Ikusten dugu egunkarien diru sarrerak murrizten ari direla modu batera edo bestera. Alde batetik, orain arte negozio bidea izan den prentsaren salmenta jaisten ari da, poliki-poliki; horri, publizitatearen jaitziera nabarmena gehitu behar zaio. Hori ikusita, barruan dauden zerbitzuak gizarteratzeko, merkaturatzeko apustua egin dugu BERRIA Taldean. Azken batean, hedabide bat garenez, inguruan ditugun zerbitzu eta azpiegituren bidez negozio bide berri bat ireki nahi dugu. Betiere pentsatuz, negozio bide horrek beste urrats bat egiteko aukera emango digula hedabideen sorreran.

Azken urteetan ere BERRIA Taldea ari-tu da horretan, ezta?

Orain arte BERRIA Taldeko zerbitzu bakoitzak bere bidea egin du. Banaketa izan da, ziurrenik, garapen handiena izan duena. Izan ere, egunkariak banatzen zituen enpresa zen Etxeraino, eta orain paketeriaren banaketa eta bestelako buzo-neoak egiten ditu. Garapen indartsu bat

izan du. Beste zerbitzu batzuek garapen txikiagoa izan dute. Kasu honetan, azken urratsa egin dugu: denak marka baten inguruan bildu. Horri esker, errazago kokatuko gara merkatuan, zerbitzu osoagoa eta integralagoa eskainiz.

Urrats berritzailea da, ezta?

Maila txikiagoan beste hainbat hedabide ere egin dute. Herri aldizkari batzuek, adibidez, eskaintzen dute beren diseinu zerbitzua. Gure eskaintza zabalagoa da.

Dena den, krisi ekonomikoak ez du asko lagunduko...

Krisi ekonomikoa bete-betean dago, eta argi dago ez dela erraza izango merkaturatu lekua egitea, bertan kokatzea. Argi dago inurri lana egin beharko dugula pixkanaka lekua hartuz joateko. Baina apustu hau egin badugu, horretarako aukera dugula iruditzen zaigulako da. Kalitatea izango da gure berme nagusia.

Bezero izan daitezkeenei begira: zer-gatik aukeratu Bidera?

Aipatu bezala, gure berme nagusia kalitatea izango da. Horrekin batera zerbitzuak euskaraz eskaintzen ditugu. Gai-



Joan Mari Larrarte, Berria taldeko kontseilari ordezkaria.

nera, BERRIA laguntzeko modu bat ere bada Biderako zerbitzuak kontratatzea.

Bezeroekin izandako harremanak nolakoak izan dira?

Lan komertziala egiten badaramagu denbora bat, eta harrera ona izaten ari da. Poliki-poliki joan behar dugu jendea erakarriz. Banaketaren alorrean, dugun azpiegiturak aukera ematen digu zabal-tzen jarraitzeko, eta euskara eta diseinu alorrean egunero erakusten eta demostratzen dugu zertarako garen gai. Horiek dira gure puntu indartsuenak.

BIDERA ZERBITZUAK: Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila.

bidera

zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea

BAZTANGO 50 ENTITATEK BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ESKURATU DUTE

Guztira 50 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria Baztanen, ekainean Elizondon egin zen banaketa ekitaldian. Horietatik 6k “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila lortu zuten; 25ek “Zerbitzua euskaraz” maila; eta 19k “Bidean” maila. Azpimarragarria da, aurten 2 entitate berrik eskuratu dutela Ziurtagiria: Etxenikea landa-etxeak eta Ilargi

ostatuak. Beste bi entitatek aldiz, mailaz igotzea lortu dute: Astiz Anaiak zurgindegia “Zerbitzua Euskaraz” maila izate-tik “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” maila izatera igaro da; Lur dantzalekua berriz, “Euskararen Bidean” mailatik “Zerbitzua Euskaraz” mailara pasa da. Banaketa ekitaldian izan ziren Virginia Alemán Baztango alkatea eta Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria.



BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN 2011KO PUBLIZITATE KANPAINA MARTXAN DA

“Bai Euskarari, Urrats Biziak” lelopean, abian da dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiriaren 2011ko publizitate kanpaina. Azken publizitate kanpainetan Ziurtagiria zeukaten entitateak nahiz bezeroak izan badira protagonista, oraingoan euskararen aldeko urratsei eman nahi izan zaie garrantzia. Hala, animazioak erabiliz, hiru egoera erakutsi dira. Eta egoera horietan transmititzen den mezuan egiten da enfasia. Zergatik erabiltzen dugu gaztelania euskara erabil dezakegun egoera askotan? Zeharka bada ere galdera hori ezkututzen da animazioen atzean. Hala, atentzioa eman nahi izan zaio hartzaileari, pentsarazteko eta mugimenduan jartzeko.



ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAK

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN
DEKLARAZIO
UNIBERTSALAREN
BERRESPENA EGIN DU
EUSKALGINTZAKO NAHIZ
NAZIOARTEKO BESTE
ERAKUNDE BATZUEKIN
BATERA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak antolatuta nazioarteko bigarren sinposioa ospatu zen ekainaren 8an eta 9an Donostian. Horrekin batera, bigarren egunean ekitaldia egin zuen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Bertan, Behatokiaren 10. urteurrena ospatzeaz gain, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren berrespena ere egin zuen euskalgintzako zein nazioartetik etorritako hainbat ordezkari, honen 15. urteurrenean.



Hizkuntza eskubideen aitortzarako eta defentsarako estrategiak nazioarteko sinposioaren bidez, egun hizkuntza-komunitateek beren eskubideen aitortzarako eta bermerako nazioarteak zer nolako tresnak sortu dituen aztertu zen.

ZIURTAGIRI BERRIAK

Besteak beste, Camping Angostok, HETEL Heziketa Teknikoko Elkarteak, Komunonak enpresak, Lokatzetan Kirol Elkarteak eta Geolan Ingurumen Zerbitzuek Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dute.

Komunonakek **Zerbitzua euskaraz** maila lortu du. Hainbat ekimenetarako zerbitzuetan espezializatuta dagoen enpresa berria da. Legazpin dago eta era guztietarako ekitaldi eta jaietarako moduluak eta komun ekologikoen alokairua eta erabilpena eskaintzen ditu.

HETELek **Euskararen bidean** maila lortu du. HETEL, Heziketa Teknikoko Elkarteak, lanbide heziketan diharduten ikas-tetxeen elkarte da elkarte da. Euren

artean teknologia eta pedagogiaren berrikuntza sustatu eta hauen eta gizartearen artean komunikazioa eta elkar laguntza bultzatzea da helburu nagusia.

Arabako Gaubea bailaran kokatua dagoen **Camping Angostok** Bai Euskarari Ziurtagiria **Euskararen bidean** maila eskuratu du. Kanpina, paisai ederrez inguratuta dago natur ingurune paregabe batean, Valderejo parke Naturalaren atarian hain zuzen ere.

Lokatzetan Kirol Elkarteak Bai Euskarari Ziurtagiria **Zerbitzua eta lana euskara** maila eskuratu du. Orain arte Euskal Herri mailan ospatu diren mendi dualoi probak bateratu eta zirkuito ofizial

bat antolatzeke helburuarekin sortu da elkarte berri hau.

Geolan enpresak, **Zerbitzua euskaraz** maila lortu du. Ingurumen zerbitzuaz gain, segurtasun arloko zerbitzuak eta kalitate arloko barne ikuskaritzak, ISO sistemaren kudeaketa eta ezarketaren inguruko zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

Azken asteetan Bai Euskarari Ziurtagiria lortu duten beste entitate batzuk: Aizkorpe Elektrikariak Kooperatiba Elkarteak, AZIA elkarteak, Briconautes, Cadofleur, Clara veut la lune, Elkar Maule, Etche Déco, Etxenikea Landaetxea, Ilargi Ostata, INDARRA Informatique, Pharmacie Centrale Quincaillerie Donibane SARL.

EKITALDIA DONIBANE LOHITZUNEN



Jada 9 urte dira lehen Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu zirela Iparraldean. Geroztik, anitz izan dira proiektuarekin bat egin dutenak eta Ziurtagiria eskuratu dutenak. Une honetan sektore guztietako 251 entitatek dute Bai Euskarari Ziurtagiria.

Iparraldeko eragileek egiten duten lana errekonozitzeko irailaren 20an arratsaldeko 7etan ekitaldia egingo du Ziurtagiriaren Elkarteak Donibane Lohitzuneko Ravel entzutegian.

NETWORKINGA EUSKARAZ

Urteroko legeaz, Euskalitek antolatzen duen XVII. Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astea hartuko du parte Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak. Hala, azaroaren 10erako **Enpresarean: networkinga euskaraz** izeneko egitasmoa antolatu du Bilbon. Orain arte Enpresarean egitasmoa Facebook orrialde batean oinarritu izan da. Baina etorkizunera begira helburua da eremu gehiagotara ere hedatzea. Beraz, proiektua ezagutarazteko eta euskaraz ere badiharduten enpresen nahiz erakundearen artean co-workinga martxan jartzeko saio presentzial bat egingo da.



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Bai Euskarari urrats biziak

